AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

525

13/2017 EBAZPENA, urtarrilaren 18koa, Uribe ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Jose Luis Blazquez Diez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko Urdulizko Ospitalean Larrialdietako zerbitzuburu sanitario izendatu da aldi baterako, lau urterako eta luzatzeko aukerarekin.

Urriaren 25eko 162/2016 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko Urdulizko Ospitalean Larrialdietako zerbitzuburu sanitario lanpostua lehiaketa bidez betetzeko.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Jose Luis Blazquez Diez jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, ondoko hau erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko Urdulizko Ospitalean Larrialdietako zerbitzuburu sanitario.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat etorriz, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jose Luis Blazquez Diez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko Urdulizko Ospitalean Larrialdietako zerbitzuburu sanitario izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, aldi baterakoa izango da luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2017ko otsailaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, luzapena onartzen ez bada, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESIri jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Getxo, 2017ko urtarrilaren 18a.

Uribe ESIko zuzendari gerentea,
M.ª LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.